



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2018KO URTARRILAREN 25ean EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2018ko urtarrilaren 25ean, arratsaldeko 18:05 izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea den, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O), Nerea Castaño Irazola (O.E.O) , Maider Agirre Mugika (O.E.O), Elixabet Canales Segurola (O.E.O) eta Mikel Etxarri Juanes (O.E.O), Aritz Arantzegi Areitio (O.H.E.) eta Iñigo Sarasola Aranzasti (EH-BILDU) zinegotziak .

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arévalo Benito Idazkari Kontuhartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

**AURREKO BILKURETAKO AKTEN
ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

- 2017ko azaroaren 23ko Ohiko Batzarraren akta.
- 2017ko abenduaren 22ko Ez-Ohiko Batzarraren akta.

BILDU taldeko zinegotziak honako aipamen hau egiten du: azaroko batzarrean, lanpostuen balorazioari dagokion gai zerrendako puntuan, berak lege urraketa bat zegoela aipatu zuela eta aktan jasoa izan zedin esan zuela. Aldiz, ez

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO
CELEBRADO EL 25 DE ENERO DE 2018.**

En Olaberria, a 25 de enero de 2018, siendo las 18:05 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena (O.E.O) , y los concejales, Nerea Castaño Irazola (O.E.O) , Maider Agirre Mugika (O.E.O) , Elixabet Canales Segurola (O.E.O) , Mikel Etxarri Juanes (O.E.O), Aritz Arantzegi Areitio (O.H.E.) e Iñigo Sarasola Aranzasti (EH-BILDU) .

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arévalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, la Corporación pasa a estudiar el primer asunto del orden del día.

**APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS
ACTAS DE LAS SESIONES
ANTERIORES.**

- Acta de la Sesión Ordinaria del 23 de noviembre de 2017.
- Acta de la Sesión Extraordinaria del 22 de diciembre de 2017.

El concejal del grupo BILDU puntualiza que en la sesión plenaria de noviembre, en el punto del orden del día correspondiente a la valoración de los puestos de trabajo, él mencionó que hay una infracción legal y



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

dago aktan jaso.

Idazkariak erantzuten dio grabaketa berriz ere entzungo duela eta horrela badagokio, aktan txertatuko duela.

Aktak bozkatzen dira, biak aho-batez onartuz.

además solicitó que dicha afirmación constara en acta. Sin embargo, no se recoge.

La secretaria responde que volverá a oír la grabación y que si así correspondiere, lo añadirá al acta.

Se procede a la votación, aprobándose las dos actas por unanimidad.

ALKATETZAKO GAIAK

Alkatetza ebazpenen berri ematea.

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 228/2017etik 5/2018 bitartera.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

Lurzoru ez-urbanizagarrian kokaturiko nabean estaldura baten hedapenaren inguruko baimen eskaera:

1.- Gai zerrendan sartzearen berrespena.

2.- Horrela balitz, irizpideen inguruko erabakia hartzea.

Alkateak hitza hartzen du zera azaltzeko: gaia joan zen batzorde informatzailean ez zenez azaldu, beharrezkoa da alde batetik, puntu hau gai zerrendan txertatzearen urgentzia motibatzea eta ondoren, gai zerrendan sartzen den edo ez erabakitzea.

TEMAS DE ALCALDÍA

Dar cuenta de los decretos de alcaldía.

El señor alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 228/2017 al 5/2018.

Los corporativos quedan al corriente.

Solicitud de licencia ampliación de zona cubierta de nave sita en suelo no urbanizable:

1º Ratificación de inclusión en el orden del día.

2º Si así fuera, adopción de criterios.

El alcalde toma la palabra para informar a los corporativos de que al no haberse informado el tema en la pasada comisión informativa, es imprescindible por un lado, motivar la urgencia de la inclusión de este punto en el orden del día y posteriormente acordar si va a entrar o no en el orden del día.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Motibazioari dagokionez eta bere espedientean dauden agirietan oinarrituz, zera azaltzen da:

2018ko urtarrilaren 19an Alberto Irastorza Apaolaza jaunak, Olaberriko Errekalde auzoko Borda baserriko terrenoetan dagoen nabe baten aldameneko estalpe baten hedapenerako baimena eskatzen du Udaletxean.

Irastorza jaunak bere eskaeran dioenaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundian ematen duen diru-laguntza bat dago, eskaera aurkezpen epea urtarrilaren 26an agortzen dela eta honek Udalaren onespena eskatzen duela.

2018ko urtarrilaren 19an, udal arkitekto aholkulariak halabeharrezko txostena igortzen du, beste gai batzuen artean, honako hau aipatzen duelarik:

“(...) A la vista de lo anterior se informa de que, dado que se trata de una ampliación, aspectos tales como; superficie máxima de la parcela, distancia a la carretera, longitud máxima de la edificación y separaciones a otras edificaciones, deberán ser valorados por el Ayuntamiento y este adoptará, justificadamente, la resolución que considere oportuna. (...)”

Kontutan izanda Hiri Antolaketa Plangintza Orokorraren ordenantza orokorrek 72.6 artikuluan honako hau xedatzen duela:

“6.- Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenerako eraikinak

A.-Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi-

En cuanto a la motivación y en base a la documentación obrante en su expediente, se expone lo siguiente:

Con fecha 19 de enero de 2018, el Sr. Alberto Irastorza solicita licencia para la ejecución de la ampliación de un porche situado junto a la nave existente en los terrenos del caserío Borda, sito en el Barrio Errekalde de Olaberria.

El Sr. Irastorza expone en su solicitud que necesita una respuesta urgente porque hay una subvención que otorga de la Diputación Foral de Gipuzkoa cuyo plazo de presentación expira el 26 de enero siendo necesaria para su presentación la aprobación municipal.

Con fecha 19 de enero de 2018 el arquitecto asesor municipal emite informe preceptivo en el que, entre otras cuestiones, expone lo siguiente:

Considerando que el punto 6 del artículo 72 de las ordenanzas generales del Plan General de Ordenación Urbanística , especifica lo siguiente:

“ 6.- Construcciones destinadas a la explotación agropecuaria

A.- Se considerarán entre ellas todas las



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

erabileretara edo horien erabilera osagarri eta lagungarrietara –kortak, ukuiluak, lastategiak, siloak, nekazaritzako makineria eta baserriko eta nekazaritza-industriako pertsonen ibilgailuak gordetzeko eraikinak eta abar– bideratutako eraikin finko eta egonkor guztiak hartuko dira halakotzat, etxebizitza izan ezik.

B.-Antolamenduz kanpokotzat hartutako eraikinak izan ezik, Plan hau onartu aurretik zeuden eraikin guztiak finkatutzat joko dira, aipatutako erabilerak baldin badituzte.

Eraikin horiek handitzeko, eraikin berrien kasuan ondoren ezarriko diren baldintzak aplikatuko dira, baldintza horiek betetzea benetan ezinezkoa ez bada behintzat. Horrelakoetan, Udalak egoki iritzitako erabakia hartuko du, behar bezala arrazoituta. Eraikin horiek finkatzeko, oro har, txabolak, eraikin prekarioak, teilapeak eta abar eraitsi beharko dira; hartara, eraikinaren eta bere inguruaren itxura eta irudi orokorra hobetuko dira.

C.-Nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiei – lehendik daudenei zein berriei– lotzen zaizkien eta erabilera horietara bideratzen diren eraikin berrien kasuan, Abeltzaintzako ustategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen uztailaren 6ko 141/2004 Dekretuaren I. Eranskinean ezartzen diren bereizketa-baldintzak bete beharko dira.

Horretaz gain, honako zehaztapen hauek beteko dituzte:

a) Tartekak:

construcciones de carácter fijo y estable, destinadas directamente a usos de explotación agropecuaria o a usos complementarios y auxiliares de los mismos -cuadras, establos, pajares, silos, edificaciones para la guarda de maquinaria agrícola y de vehículos de personas vinculadas al caserío, industria agraria, etc.-, con excepción de la vivienda.

B.- Con la sola excepción de las declaradas fuera de ordenación, se entenderán consolidadas las edificaciones existentes con anterioridad a la aprobación del presente Plan, y destinadas a esos usos.

A los efectos de su ampliación se entenderán aplicables las condiciones establecidas seguidamente para las nuevas edificaciones, salvo que sean de imposible cumplimentación, en cuyo caso el Ayuntamiento adoptará, justificadamente, la resolución que considere oportuna. La consolidación de las citadas edificaciones lleva asociado, con carácter general, el deber de eliminar las chabolas, los añadidos precarios, las tejavanas, etc., con el fin de mejorar la configuración y la imagen general del conjunto de la edificación y de su entorno.

C.-Las nuevas edificaciones destinadas a esos usos, vinculadas tanto a explotaciones agropecuarias existentes como nuevas, deberán cumplimentar las condiciones de separación establecidas en el Anexo I del Decreto 141/2004, de 6 de julio, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas.

Cumplirán además las siguientes determinaciones:

a) Separaciones de:

- Edificaciones residenciales existentes en otras



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

- Beste finka batzuetan dauden bizitegi-erabilerako eraikinetara: 50,00 m.

- Lurzatiaren eta bideen muga: lurzatiaren eta bideen mugarako gutxieneko tartea eraikinaren altueraren berdina izango da, betiere muga horretara begira dagoen fatxadari dagokionez; nolana ere, 3 metrotik gorakoa izan beharko du.

b) Eraikin handiena: 1.000 m²

c) Profila:/l/

d) Eraikinaren altuera: ... 5,00 m.

e) *Eraikinaren gehieneko luzera: . 50,00 m.*"

Ikusirik, Irastorza jaunak planteatzen duen hedapena 41,70 m²koa dela eta honekin udal araudiak aurreikusten duen eraikin handiera gainditzen duela, eskatzaileari hedapen honen beharraren justifikazioa aurkeztu dezan eskatzen zaio.

Kontutan izanda Irastorza jaunak urtarrilaren 23an Udaletxean idatzia aurkezten duela, zeinean teilatuaren hedatzearen zioak honako hauek izango lirarteke:

- Burdin zaharrak kendu eta abereen elikadura gunea hobetu.
- Bazka eta pentsua lehor mantendu.
- Animalien ongizatea hobetu.

Udal-kideek agiri guztiak aztertu eta aski eztabaidatu ondoren, honako erabaki hauek hartzen dituzte:

LEHENENGOA: Gaia zerrendan txertatzea berresten da, BILDU taldeko zinegotziaren aurkako botoarekin.

BIGARRENA: Sustatzaileak aurkeztutako justifikazioa ontzat jotzea aho- batez erabakitzen da, 41,70 m² ko

fincas: 50,00 m.

- Límite de la parcela y caminos: la separación mínima al límite de parcela y caminos será igual a la altura de la edificación en la fachada orientada hacia dicho límite y en cualquier caso superior a 3 metros.

b) Edificación máxima: . 1.000 m²

c) Perfil:/l/

d) Altura de la edificación: ... 5,00 m.

e) Longitud de edificación máxima: . 50,00 m."

Visto que la ampliación planteada por el Sr. Irastorza el de 41,70 m² y supera la edificación máxima que permite la precitada normativa municipal, se le pide al solicitante que justifique el motivo por el cual resulta necesaria esa ampliación.

Considerando que el 23 de enero el Sr. Irastorza presenta escrito en el Ayuntamiento, en el que expone que el motivo de la ampliación del tejado es adecuar la zona quitando algunos hierros viejos y adecuar la zona de alimentación del ganado, con el fin de que no se mojen el forraje y el pienso y mejorar así el bienestar de los animales.

Una vez los corporativos estudian la documentación obrante y debatido suficientemente, toman las siguientes decisiones:

PRIMERO: Se acuerda, con el voto en contra del concejal del grupo BILDU , ratificar su inclusión en el orden del día.

SEGUNDO: Se acepta por unanimidad la justificación aportada por el promotor, considerando que el exceso de 41,70 m² de



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

eraikigarritasunaren gehikuntza behar adina arazoitua geratzen delarik.

HIRUGARRENA: Nabe hau ezin izango da berriz ere beste hedapen baten objektu izan.

LAUGARRENA: Erabaki hau Alberto Irastorza Apaolaza jaunari jakinaraztea.

BILDU taldeko zinegotziak azaltzen du, gaia zerrendan sartzearen berrespenaren aurkako botoa eman duela arrazoi hauengatik:

- Gai zerrendan sartutakoa errespetatzeagatik.
- Eskatzailea bere talde politikoko kidea izanik, margenean gelditzea egokitzat jo duelako.

AZPIEGITURAK ETA HIRIGINTZA

Udal eraikinen garbiketa zerbitzuari dagokion kontratuaren lizitazioaren hasiera.

Joan zen batzorde informatzailean udal-kideei gaiaren berri eman zitzaien.

Bertan, aipatu jarduketaren kontratazio prozedura arautuko duten baldintza administratiboen zein plegu teknikoan agiria aurkeztu zen .

Gaia behar adina aztertu ondoren, honako hau adosten da aho-batez:

LEHENENGOA: Aipatu kontratazio prozedurari hasiera ematea erabakitzen da.

aumento de edificabilidad queda suficientemente razonado.

TERCERO: Dicha nave no podrá volver a ser objeto de ampliación.

CUARTO: Comunicar el presente acuerdo al Sr. Alberto Irastorza Apaolaza

El concejal del grupo BILDU expone que ha votado en contra de la ratificación de la inclusión de este punto en el orden del día por las siguientes razones:

- Por respetar lo incluido en el orden del día.
- Porque el solicitante se trata de un miembro de su grupo político y considera oportuno mantenerse al margen.

INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO

Inicio de licitación del contrato del servicio de limpieza de edificios municipales.

Se informó a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se expuso a los corporativos el pliego de cláusulas administrativas particulares además de los pliegos técnicos que han regir el procedimiento de contratación de la referida actuación.

Tras estudiar el tema suficientemente se acuerda lo siguiente por unanimidad:

PRIMERO: Se acuerda dar inicio al referido procedimiento de contratación.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Onartzen dira aipatu kontratazio prozedura arautuko duten baldintza administratiboen zein plegu teknikoen agiriak.

HIRUGARRENA: Erabakitzen da aurrean aipaturiko jarduketa egiteko gastua onartzea eta kontratazio prozedurari hasiera ematea.

Gainera auzoko eskola zaharretan egingo diren 9 etxebizitzaren esleipendun izateko baldintza pleguen onarpena.

Alkatea eta Nerea Castaño zinegotzia aretorik irteten dira .

Maidera Agirre zinegotziak hitza hartzen du eta bertaratutakoei gaia azaltzen die.

Joan zen batzorde informatzailean udal-kideei gaiaren berri eman zitzaion.

Bertan, Gainera auzoko eskola zaharretan egin beharreko etxebizitza tasatuen esleipen prozeduran parte hartzeko bete behar diren baldintza plegua aurkeztu zitzaion udal-kideei.

Aurrekoaz gain, interesdunek bete beharreko eskaera orri-eredua aurkeztu zen.

Gaia behar adina aztertu ondoren, honako hau adosten da aho-batez:

BAKARRA: Aipatu baldintza plegua zein aurkeztutako eskaera orria onartzea erabakitzen da, dagokion espedientean

SEGUNDO: Se acuerda aprobar los pliegos de cláusulas administrativas particulares y pliego de bases técnicas que han regir el procedimiento de contratación de la referida actuación.

TERCERO: Se acuerda aprobar el gasto correspondiente y dar inicio al procedimiento de contratación de la citada actuación.

Aprobación del pliego de condiciones para poder acceder a las 9 viviendas a precio tasado a ejecutar en las antiguas escuelas del barrio de Gainera.

El alcalde y la concejal Nerea Castaño salen de la sala.

La concejal Maider Agirre toma la palabra y expone el tema a los presentes.

Se informó a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se expuso a los corporativos el pliego de condiciones que deben de cumplir los solicitantes para poder acceder a las viviendas a precio tasado que se van a ejecutar en las antiguas escuelas del barrio de Gainera.

Además del pliego, se presentó el modelo de solicitud a cumplimentar por los interesados .

Tras estudiar el tema suficientemente se acuerda lo siguiente por unanimidad:

ÚNICO: Se acuerda aprobar el referido pliego de condiciones, así como el modelo de solicitud presentado, que obran en su



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

daudelarik.

Alkatea eta Nerea Castaño zinegotzia aretora sartzen dira.

LANGILERIA

2018. urteko lan egutegia

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaizen udal-kideei.

Guztia aztertu eta behar adina eztabaidatu ondoren, Udalbatzak zera erabakitzen du aho-batez:

BAKARRA: 2016.urteko Olaberriko Udaletxeko langileen lan egutegia onartzea.

OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

Ordenantza Fiskalen aldaketa

Gaia udal-kideei azaldu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Ordenantza Fiskalek aldaketa proposatzen da era honetan:

1.- 3/1998 Legearen aldaketa indarrean sartu baino lehen hasitako espedienteak duten baimen administratiboko araubidera lotutako jarduerentzat 2,15 €/m² tasa mantenduko da.

2.- 3/1998 Legearen aldaketa indarrean sartu

correspondiente expediente.

El alcalde y la concejal Nerea Castaño entran en la sala.

PERSONAL

Calendario laboral 2018

En la pasada comisión informativa se expuso el tema a los corporativos.

Después de estudiarlo todo y debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno acuerda por unanimidad:

ÚNICO: aprobar el calendario laboral para el personal del Ayuntamiento de Olaberria para el año 2016.

HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

Modificación de las Ordenanzas Fiscales.

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se propone una modificación de las Ordenanzas Fiscales en estos términos:

1.- Para las actividades clasificadas sujetas al régimen de licencia administrativa cuyo expediente se haya iniciado con anterioridad a la entrada en vigor de la modificación de la Ley 3/1998, se mantendrá para la licencia de actividad la tasa de 2,15 euros/m².

2.- Para las actividades clasificadas sujetas



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ondoren hasitako espedientea duten baimen administratiboko araubidera lotutako jarduerentzat, 10,73 euros/m² ko tasa berri baten sorrera proposatzen da.

Aldaketa ostean, Ordenantza horrela geratuko litzateke:

**ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO
LIZENTZIAK EMATEAGATIK ORDAINDU
BEHARREKO TASAK (€/JARDUERAREN
OKUPAZIOZKO M2)**

Sailkatutako jarduerak:

-Aurretiazko jakinarazpenari lotutakoak:
8,58 €/m²

Tasaren kopurua 5.365 € izango da gehienez

Lizentzia administratiboko erregimenera lotuta dauden jarduerak:

1.- Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen aldaketa indarrean sartu baino LEHEN hasitako espedientea duten baimen administratiboko araubidera lotutako jarduerentzat

-Jarduera lizentzia:.....2,15 €/m².
- Irekitzeko lizentzia:.....8,58 €/m².

2.- Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen aldaketa indarrean sartu ONDOREN hasitako espedientea duten baimen administratiboko

al régimen de licencia administrativa cuyo expediente se haya iniciado con posterioridad a la entrada en vigor de la Ley 3/1998, se propone la creación de una tasa de 10,73 euros/m².

Tras la modificación, la Ordenanza sería del siguiente tenor:

“ TASA POR EL OTORGAMIENTO DE LICENCIAS DE APERTURA DE ESTABLECIMIENTOS (€/M2.DE DE OCUPACIÓN DE LA ACTIVIDAD))

Actividades clasificadas:

-Sometidas al régimen de comunicación previa:
8,58 €/m²

Importe máximo de la tasa es de 5.365 €

Actividades clasificadas sujetas al régimen de licencia administrativa:

1.- Para las actividades clasificadas sujetas al régimen de licencia administrativa cuyo expediente se haya iniciado con ANTERIORIDAD a la entrada en vigor de la modificación de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco :

- Licencia actividad:..... .2,15 €/m².
- Licencia apertura:.....8,58 €/m².

2.- Para las actividades clasificadas sujetas al régimen de licencia administrativa cuyo expediente se haya iniciado con POSTERIORIDAD a la



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

araubidera lotutako jarduerentzat

-Jarduera lizentzia:.....10,73 €/m2.

Nolanahi ere, jarduerengatik ordaindu beharreko tasa gehienez 10.730 € izango da.

Aipatu tasen kuotarekiko %75 –eko **hobaria** aplikatuko zaie nekazal ustiapen titular diren zergadunei, beti ere Olaberriko Udalerrian erroldaturik badaude eta tasen objektua nekazal ustiapena baldin bada.

Idazkari-kontuhartzaileak halabeharrezko txostena igortzen du 2018ko urtarrilaren 17an, dagokion espedientean dagoena.

Aski aztertu ondoren, Udalbatzak honako erabakia hartzen du aho-batez:

LEHENGOA: 2018 ekitaldiko Ordenantza Fiskalen lehenengo aldaketa onartzea, **ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO LIZENTZIAK EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK** atalari dagokionez.

BIGARRENA: aipatu akordioa eta horretarako izapidetutako espedienteak jendaurreko informazioan jartzea 30 laneguneko epean, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foralaren 16.1 artikulua ezartzen duenaren arabera, aldizkari ofizial honetan eta Udaletxeko iragarki taulan iragarkiak ezarriz, aipatu artikulua 2.

entrada en vigor de la modificación de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco :

- Licencia actividad:.....10,73 €/m2.

En todo caso, la cantidad máxima a abonar por las actividades será de 10.730 €.

*Tendrán una **bonificación** del 75% de la cuota los contribuyentes titulares de explotaciones agrarias que estén empadronados en Olaberria, siempre y cuando el objeto de las tasas a las que se hacen referencia sea la explotación agraria.*

La secretaria-interventora emitió informe preceptivo el 17 de enero de 2018, que obra en su correspondiente expediente.

Tras debatirlo suficientemente, el Ayuntamiento Pleno adopta la siguiente decisión por unanimidad:

PRIMERO: aprobar de forma provisional , la primera modificación de las Ordenanzas Fiscales del ejercicio 2018, en lo referente a la **TASA POR EL OTORGAMIENTO DE LICENCIAS DE APERTURA DE ESTABLECIMIENTOS .**

SEGUNDO: someter a información pública el acuerdo adoptado y el expediente al efecto instruido durante un plazo de 30 días hábiles, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en este



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

zenbakiak eskatzen duenaren arabera.

medio oficial y en el tablón de anuncios de la Casa Consistorial, según exige el número 2 del citado artículo.

3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.

Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.

Hauek dira joan zen batzorde informatzailean udal-kideei 25/01/2018 -rarteko aurkeztutako fakturak:

Estas son las facturas presentadas a los corporativos en la pasada comisión informativa, a fecha 25/01/2018:

CONSTRUCCIONES ITURRIOZ, S.A.	A20053773		FRA. 513/17	8.177,91 €
GIPUZKOAKO URAK S.A.	A20471462	ADO-99-23/2018	FRA. 970000147	46.081,71 €
GIPUZKOAKO URAK S.A.	A20471462	ADO-99-22/2018	FRA. 960000065	4.470,74 €
GIPUZKOAKO URAK S.A.	A20471462		FRA. 980001293	12.950,67 €
GIPUZKOAKO URAK S.A.	A20471462		FRA. 980001292	46.785,95 €
EULEN S.A.	A28517308		FRA. 3168523	4.765,33 €
DOUBLET IBERICA S.A.	A58890682		FRA. 87486/101932	3.304,87 €
EXCAVACIONES GAÑERA S.L.	B20659793		FRA. 114/2017	14.046,89 €
ORUE ABOGADOS S.L.P.	B20854444		FRA. 513/17	4.404,40 €
EXCAVACIONES GAÑERA S.L.	B20659793		FRA. 3/2018	3.518,68 €
CONSTRUCCIONES KOLDO KEREJETA S.L	B20654984		FRA. 2018/0002	57.474,29 €
GOIHERRIKO TRESNA KOOPERATIBA	F20372975		FRA. 212	5.507,92 €



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Alkateak zera azaltzen du:

* Goierriko Tresna Kooperatibak igorritako 212 zenbakidun faktura ez denez dagokion batzorde informatzailetik pasatu, beharrezkoa dela adostea gai zerrendan sartzen den edo ez.

* Goierriko Tresna Kooperatibak burututako eta fakturatutako lanen edukia azaltzen du.

Fakturak bozkatzeko dira, faktura guztiak gehiengo absolutuz onartzen direlarik Bildu taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

Diruzaintzaren egoera: informazioa.

Udal-kideei, 2018ko urtarrilaren 16ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira **3.094.159,20 euro** ditu.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

El alcalde expone lo siguiente:

* La factura n.º 212 emitida por Goierriko Tresna Kooperatiba no se pasó por la comisión informativa correspondiente, por lo que habrá que acordar si se incluye o no en este orden del día.

* Expone los trabajos realizados y facturados por Goierriko Tresna Kooperatiba.

Se procede a la votación, quedando todas las facturas aprobadas por mayoría absoluta, con la abstención del concejal del grupo Bildu.

Situación de tesorería: información.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 16 de enero de 2018.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **3.094.159,20 euros**.

Los corporativos quedan al corriente.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

ZERBITZU SOZIALAK

Etxez-etxeko laguntza zerbitzuari dagokion lizitazioa hutsik gelditzearen adierazpena

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaion udal-kideei.

Eskaintzak aurkezteko emandako epean ez zen lizitatzailerik aurkeztu.

Aski eztabaidatu ondoren, udal-kideek honako akordio hauek hartzen dituzte aho-batez.

LEHENENGO: Etxez-etxeko laguntza zerbitzu kontratazio prozedura bertan behera uztea, ez delako lizitatzailerik aurkeztu horretarako emandako epe barruan.

BIGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadila .

Galdera eta erreguak

- Aritz Arantzegi zinegotzia (O.H.E.)

*** Autobus zerbitzua:**

Zenbait kexa jaso dira autobus zerbitzuaren gabeziari buruz. Zer berri dago?

Alkateak zera erantzuten dio:

* Lurraldebusen autobus zerbitzu asko murrizten ari dituela.

* Udaletik behin eta berriz saiatu izan gara

SERVICIOS SOCIALES

Declaración de desierto de la licitación correspondiente al servicio de ayuda domiciliaria.

Se expuso el tema a los corporativos en la pasada comisión informativa.

En el plazo otorgado para la presentación de propuestas no se presentó ningún licitador.

Tras debatirlo suficientemente, los corporativos adoptan los siguientes acuerdos por unanimidad:

PRIMERO: Declarar desierto el procedimiento de contratación referente a la prestación del servicio de ayuda domiciliaria, por no haberse presentado ningún licitador en el plazo otorgado al efecto.

SEGUNDO: Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Ruegos y preguntas

- El concejal Aritz Arantzegi (O.H.E.)

*** Servicio de autobus:**

Se han recibido quejas a cerca de la falta del servicio de autobús. ¿Hay noticias al respecto?

El alcalde responde que:

* Lurraldebus está eliminando servicios de autobús.

* Desde el Ayuntamiento hemos



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

gaia eramaten duen Aldundiko arduradunarekin harremanetan jartzea bilera eske: telefonoz, idatziz....ez digute inoiz jaramonik egin.

* Udalak luzatu dion eskaera, eskaripeko zerbitzua izan da.

* Aldundiarekin harremanetan jartzea berriz ere saiatuko gara.

* Beste aukera bat, Udalak berak eskaripeko garraio bat ezartzea izango litzateke, baina honek suposatuko lukeen kostua aztertu beharko litzateke.

* Aurrekontuetan onartutako inbertsioak:

Zelan gauzatzen ari dira inbertsioak?

Alkatearen erantzuna:

.- Tenis pisten estaldura: proiektua daukagu eta litekeena da inbertsioa aurrera eramateko kreditu aldaketa bat planteatzea.

.- Udaletxeko lehenengo solairuko zoruaren aldaketa: esleituta dago eta aurki hasiko dira.

.- Ondarearen erosketa: jabeekin harremanetan jartzen hasi gara.

.- Ihurren zabor bilketa ontziak: bizilagunen artean galdeketa egin da zabor-ontziak non kokatuko diren adosteko.

intentado una y otra vez ponernos en contacto con el responsable foral del tema, solicitando una reunión: por teléfono, por escrito... nunca nos han hecho caso.

* Lo que se ha solicitado del Ayuntamiento ha sido un servicio bajo demanda.

* Volveremos a intentar ponernos en contacto con Diputación.

* Cabe la posibilidad de que el Ayuntamiento financie un transporte público bajo demanda, pero habría que analizar los costos.

* Inversiones aprobadas en los presupuestos:

¿Cómo se van ejecutando las inversiones?


Respuesta del Alcalde:

.- Cubrición de las pistas de tenis: tenemos el proyecto y probablemente se pondrá en marcha una modificación de créditos para ejecutar esa inversión.

.- Cambio de suelo de la primera planta del Ayuntamiento: está adjudicado y en breve se llevará a cabo.

.- Compra de patrimonio: ya se están teniendo conversaciones con los propietarios.

.- Contenedores de recogida de residuos en Ihurre: se ha hecho una consulta entre los vecinos para acordar



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

.- Ihurreko erdiko kalearen birurbanizazioa bukatzeko proiektua eskatu da.

.- Herri bideak: diru-laguntza eskatzekotan gaude.

.- Kotxe elektrikoen karga: hornitzaileekin pausuak ematen ari gara.

Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 18:40-ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du

ALKATEA / EL ALCALDE

la colocación de los mismos.

.- Se ha solicitado proyecto para finalizar la reurbanización de la calle de la mitad de Ihurre.

.- Caminos rurales: se va a solicitar una subvención.

.- Carga de coches eléctricos: se han dado pasos con proveedores.

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 18 horas y 40 minutos, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado

IDAZKARIA / LA SECRETARIA